



Ez dago inolako zirrikiturik, oraingoz bederen. Egun, behintzat, ez dago zalantza izpirik. Gauzak zeharo aldatu beharko lirateke baina denbora laburrean ez dugu espero aldaketarik: "Eguzkia irtengo da bihar ere". Bihar bat egongo da eta ezin izango dugu denbora gelditu. Hori ere garbi dago.

OST taldea 1995eko udan sortu zen Bermeon (Bizkaia). Maiz gertatzen den bezala, beste talde batzuetan ibilitako jendeak eman zion hasiera OST taldeari. Bidxorrak taldea desegin eta OST eratu zuten handik gutxira. 1995ean lau abestiko maketa prestatu zuten eta 1996an "Hitzak-Hotzak" diskoa argitaratu zuen Gor diskoetxeak. 1997an Bilbo Hiria rock lehiaketan bigarren lekuan geratu ziren eta 1998an "Salbuespena" diskoa kaleratu zuten (Gor). Hortik aurrera, komeriak baino ez zitzaizkion gertatu OST taldeari: taldekide aldaketak, diskoetxerik gabe geratu ziren eta diskoaren argitarapen atzerapenak. Askorentzat ia desagertutzat zegoen taldea baina 2006an "Ostinato" (Baga-Biga) izenburua duen hitz-jokoarekin eman zieten bukaera eta buelta azken urteetako buruko minei. Eguzkiak ez du galdu, oraindik ere, egunero irteteko joera.

OST taldeak lehen diskoa argitaratu zuenetik hamabi urte igaro dira, baina metal doinuak entzun gabe dituen lau urteko ume bati jarri diot entzun dezan "Inorena ez den lurreen" diskoa. Zer-nolako erreakzioak dituen ikusi nahi dut. Zer-nolako iritzia duen jakin nahi dut. Belarrietan duen entzungailua eutsiz eskuekin burua mugitzen hasi da, buru-kolpeak ematen, burua astintzen. Hortzak estutu, amorru itxura marraztu du aurpegian, eta "indar handia du, gogorra da" esan du.

OST taldeak Koba estudioan (Bilbo) grabatu du diskoa 2008ko irailean. Xanpe (Pil.T.) soinu teknikariak egin ditu grabaketa eta nahasketak. Musikari laguntzaileei dagokionez, Rafa Ruedak bakarrik egin du "Ezagutzen ez dena" abestian, Aiora Renteriak (Zea Mays) ahotsa sartu du "Ezagutzen ez dena" abestian, Argik (Kode) beste ahotsak eta oihuak egin ditu "Berriz" abestian, Mikelek (Loan) oihu egin du "Ezerezean" introan eta Terek txeloa jo du "Gelditu denbora" abestian.

OST taldearen laugarren diskoa (Inorena ez den lurreen) aurrekoak bezala metalaren eremuan dago. Metal indartsua, sarkorra, boteretsua, lodia. Baina dena ez da horrela. Tarte desberdinek ematen diote OST taldeari mutur-muturreko metal taldea ez izatea. Une leunak ere badira diskoan zehar, "Ezagutzen ez dena" adibidez. OST taldean pisurik latzena gitarrek eusten dute. Gitarrek eransten diote zamarik eraginkorrena, soinuaren loditasuna gitarren araberakoa da. Ahotsak laguntzen dio zeregin horretan gitarrari, zakarra, guturala, latza, urratua agertzen da ahotsa, baina galdu gabe melodikotasuna; eta noiz behinka erabat garbia ageri da. Bi modu metal bakarria egiteko. Baxuaren laguntza, ezinbestekoa; bateriaren sakontasuna, derrigorrezkoa. Abiadura ez da azkarregia, taldean indar gehiago du soinuaren loditasunak. Diskoa ongien definitzen duen abestia "Gelditu denbora" luzea da. Bertan dauden tarte bortitzak, leunak, oihuak eta ahots gardenak, mezuak batu egiten dira. Dena den, bitxikeriak ere baditu diskoak eta metalaren ingurutik aldentuta, "Dena den..." abestiak Kataluniako rumbaren aztarnak ditu eta El Ultimo de la Fila taldearen besoetara hurbiltzen da. Eta bihar ere eguzkia; agian lainopean, baina eguzkia.

Jabi "Kapi" Guarrotxena: gitarra eta ahotsa
Iker Bengoetxea: gitarra eta ahotsak
Joni "5" Garamendi: baxua
Joni Guarrotxena: bateria eta ahotsak

"Inorena ez den lurreen" baina OST taldearen musika edukia oso lerrokaturik dago edo ez da inorena hori ere? Bai, ondo lerrokaturik, beti entzun dugunetik dator eta, gainera, gure gustukoa den barruan, teknikoki ahal duguna egiten dugu... Inorena? Alderantziz, denona, entzun eta agian gozatu nahi duen edonorena.

"Inorena ez den lurreen" jabegoaren aurkako mezua? Oso garbi eta garden esaten dituzue gauzak diskoan. Ez, ez, izenburuak ez dauka horrekin zerikusirik. Batez ere, sentsazioa da, hau da, estiloari dagokionez, apur bat inorena ez den lurreen ikusten dugu geure burua. Esateko, gogorregiak, metaleroegiak batzuentzat (agian estilo komertzialagoaren zaleak) eta bigunegiak gustu erradikalagoak dituztenentzat metal barruan.

"Inorena ez den lurreen" laugarren diskoa. Zamatsuak gertatzen zaizkizue urteak? Bada, bai. Gero eta gehiago, baina oso ongi sentitzen gara, helduagoak, jakintsuagoak, seriotasun handiagoak... baina honetan segitzeko oztopo pertsonal gehiagorekin egiten dugu topo, baina betiko ilusioa... edo gehiago! Dudarik gabe, hau da gaur egun, gure diskorik hoberena.

ritxi aizpuru (2008ko azaroaren 6an)